

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

400/2016 Foru Agindua, urriaren 5ekoa, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio María del Mar Arranz Olmosi eginkizunak metatu eta Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udal taldearen idazkari eginkizunak ere betetzeko 2016ko irailaren 22tik 30era (biak barne)

María del Mar Arranz Olmos gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioa, Eskuernaga, Samaniego eta Mañuetako udal taldearen idazkari lanpostuaren titularra, zerbitzu eginkizunetan izendatu zen Zanbranako Udalean zegokion lanpostua betetzeko, abuztuaren 18ko 371/2016 Foru Aginduaren bitartez.

Aldi berean, eta bera titular den udal taldeko lanpostua hutsik geratuko zenez zerbitzu eginkizunak gauzatzeko eman zitzaion baimena zela eta, Eskuernaga, Samaniego eta Mañuetako udal taldeak, Zanbranako Udaleko alkatearen eta interesdunaren adostasunez, eskatu zuen eginkizunak metatu eta udal talde horretako lanpostukoak ere bete zitzala, lanpostu hori uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, funtzionario horientzat gordetako lanpostuak nola bete arautzen duenak, ezarritako moduen bitartez bete arte.

Hortaz, abuztuaren 26ko 264/2016 Foru Dekretuan xedatutakoari jarraituz, baimena eman zitzaion María del Mar Arranz Olmosi eginkizunak metatu eta aipatutako udal taldearen idazkari lanpostukoak ere bete zitzaion, eta baimen hori aurtengo irailaren 21era bitartean gauzatu da.

Irailaren 27an, udal taldearen lehendakariaren idazkia jaso genuen sail honetan, Zanbranako alkatearen eta interesdunaren beraren adostasunez, beste eginkizun metaketa bat eskatzeko irailaren 30era arte, irailaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak zirela eta.

Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, hauxe dio 31. artikuluko 1. idatz zatiko azken paragrafoan:

“toki korporazioak eskatuta egingo da metaketa, dagokion funtzionarioaren eta berak destinoa duen erakundearen adostasunarekin”.

Oraingo honetan, betetzen dira eginkizunen metaketa luzatzea erabaki ahal izateko legez ezarritako betebeharrak, jaso baita Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udal taldearen berariazko eskaera, bai eta funtzionario interesdunaren adostasuna eta aipatutako funtzionarioak zerbitzu eginkizunetan lan egiten duen Zanbranako Udalaren adostasuna ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, eskatu den metaketaren luzapena baimentzeko eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundia da, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriko 1. paragrafoan zehazten den bezalaxe.

Azaldutako guztiagatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Baimena ematea María del Mar Arranz Olmosi eginkizunak metatu eta Eskuernaga, Mañueta eta Samaniegoko udal taldearen idazkari eginkizunak ere betetzeko 2016ko irailaren 22tik 30era (biak barne).

Bigarrena. Baimen honek aurtengo irailaren 22rako atzeraeragina izango du, eta 2016ko irailaren 30ean bukatuko da.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 5a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ